

KONTROL MOZIOA

Donostiako haurreskolen sare publikoari buruzkoa

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2024ko apirilaren 15ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2023-2024 ikasturtetik aurrera doakotasuna ezarri da Haurreskolak Partzuergoan. Horrela zehazten da martxoaren 22ko 5/03/2023 Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearen erabakian, zeinaren bidez onartzen diren Haurreskolak Partzuergoko plazen eskaintza, funtzionamendua eta 2023-2024 ikasturterako haurren izen-emate araua.

Doakotasuna martxan jarri denetik, Haurreskolak Partzuergoaren eskariak gora egin du nabarmen jakina, baina ez da horrela izan eskaintzaren kasuan. LAB sindikatuak jakinarazi digunaren arabera, Urbieta-Urdaneta, Aiete, Aitor-Egia, Intxaurren, Kattalin, Ategorritxo, Zuloaga eta Loiola Haurreskolak Partzuergo Publikoko haurreskoletan 2023-2024 ikasturterako plaza libreak agortu dira; era berean, Altzako eta Antiguu-Landetxeko Haurreskoletan plaza libre oso gutxi gelditzen dira, matrikulazioak izan duen martxari erreparatuta, berehala agortu daitezkeenak. Beraz, Donostian ditugun Haurreskolak Partzuergo Publikoaren plaza gehienak agortu dira ikasturte honetan, haur asko eta asko sare publikotik kanpo utziz, familia ugari haurreskola pribatu edo kontzertatura joatera bideratuz. Izan ere, plaza guztiak agortuta ez dauden arren, plaza libreak dituzten haurreskola horiek ez dira irisgarriak auzokoak ez diren familientzat; pentsa zer den 0, 1 edo 2 urteko haur batekin Amara Berritik Bidebietara mugitu beharra, edo Egiatek Antiguara, goizero eta arratsaldero.

Batzordeetan gaia landu dugunean, Loiolako Erriberetan haurreskola berria plangintzatuta dagoela erantzun diguzue; aurrekontuetan ere, horri zegokion diru-

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

partida aurreikusia dago. Berri ona, zalantzarik gabe, baina ez nahikoa. Izan ere, promesa hau ez da berria, Erriberak auzo berria zenekoa baizik; gainera, noiz hasiko dira haurreskola eraikitzeko lanak? Noizko izango dugu prest? Noiz matrikulatu ahalko dira lehenengoz auzoko haurrak haurreskola honetan? Eta zenbat izango dira plazak?

Haurreskolen sare publikoa indartzeko konpromisoak determinaziozkoa behar du, eta ez tantaka-tantaka egina. Sare osoa indartzeko behar dugu epe motz-ertainera begirako plana behar dugu. Badira zenbait haurreskola bereziki motz gelditzen direnak zerbitzua ematen dioten auzoarekin alderatuta; horiek handitzeak funtsezkoa behar luke haurreskolen sarearen gainkarga arintzeko, eta eskaintzatik kanpo gelditzen diren familiak eta haurrak hainbeste izan ez daitezen.

Badakigu Haurreskola Publikoen eskumena mixtoa dela Partzuergoaren baitan, baina Udalak badu haurreskola publikoen espazioak eta azpiegiturak hornitzeko ardura. Eta ez da ardura makala, izan ere, aipatutako haurreskoletan ez da matrikulazio gehiago egiten, espazioetan haur gehiago sartzen ez delako, literalki. Legeak metro karratuko ezartzen duen haur kopuruaren maximoan daude haurreskola asko, oso txiki gelditu dira ematen duten zerbitzua kalitatez emateko. Beraz, lokal berriak bilatu edo daudenak handitzeak lehentasunezkoa behar luke sarea indartu eta duindu nahi badugu, hezkuntza publiko, doako, unibertsala eta euskarazkoa jasotzeko eskubidea kalitatez emateko konpromisoa badugu.

Horregatik guztiagatik, daukagun sarea indartzeko plana behar dugula uste dugu. Eta horretarako, eskaintza saturatuen eta mugatuen duten auzoak zein diren identifikatu, eta horietan espazio berriak bilatzen (edo dauden espazioak handitzen) jarri behar dugu, legegintzaldi honen amaierarako Haurreskolak Partzuergoaren sare publikoaren saneatuagoa, lasaiagoa eta kalitatezkoa izan dadin Donostian.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezan auzo-uzo haurreskolen eskaintza eta eskaria zein den, auzoaren berezitasun eta beharrak identifikatuz eta haurreskolaren bakoitzaren egoeraren errebisioa eginez.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari haureskolen sare publikoa indartzeko eta plaza kopurua handitzeko legegintzaldiko plana egin dezan, Partzuergoarekin batera, sarea indartzeko lehentasunezko auzoak zein diren identifikatuz eta horietan espazio berriak gaituz.

Donostian, 2024ko apirilaren 18an

Izar Hernando Ibero
EH BILDU udal taldeko zinegotzia